

ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZAREN ALDEKO ADIERAZPENA

Geoparkea 2010ean sortu zen, Deba, Mutriku eta Zumaiako ondare natural eta kultural baliotsuaren bitartez tokiko garapenari balio erantsia emateko proiektu ilusionagarri gisa.

Geoparkea errealitate sendoa da gaur egun, eta zientzia, kultura eta hezkuntzako UNESCO balioetan oinarritzen du bere estrategia. Geoparkea denboran zehar pertsona askoren lankidetzaren emaitza da. Bere bilakaerak erakutsi du bere balio kontzeptualaz haratago, Geoparkeak dinamika eta emaitza ukigarriak sortzen dituela lurraldean. Zientziak ezagutza sortzen du, kulturak garena indartzen du eta hezkuntza gure etorkizuneko estratergiarik onena da.

Geoparkea mundurako leihua ere bada, eta gure lurra nazioartera zabaltzeko, sareak sortzeko eta gure izateko eta egiteko modua gure mugetatik kanpo erakusteko aukera aparta.

Geoparkearen ikerketa zientifikoa oso garrantzitsua izan da beti. XX. mendearen erdialdetik mundu osoko ikertzaileek gure itsaslabarrak bisitatu dituzte Lurraren historia geologikoaren pasarte garrantzitsuenetako batzuk aurkitzeko. Geoparkeak Kantauri isurialde osoko aztarnategi paleolitikoaren kontzentrazio handienetako bat ere badu, eta haren azterketari esker, zehatz-mehatz ezagutu ahal izan dugu gure arbasoen bilakaera kulturala. Gaur egun, Geoparkea biodibertsitate handiko lurraldea da, ekosistema askotarikoak eta horietako batzuk babestuak dituen, eta gure eboluzioaren arabera aldatzen jarraitzen duen paisaia.

Erakundeen eta diziplinarteko lankidetzaren bidez, Geoparkeak hasieratik lagundu du gure ondare geologiko baliotsua, gure iragan hurbilena eta gure ekosistemak hobeto ezagutzen, baina, batez ere, garrantzia azpimarratzen eta zabaltzen lagundu du. Hainbat kanal eta ekimenen bidez, Geoparkearen ezagutzaren aldeko mezua publiko zabal eta askotarikoarengana iritsi da.

Zientzia funtsezkoa da edozein gizarte garatzeko. Lurraren eta bizitzaren zientziak beharrezkoak dira Lurraren sistemarekin hobeto bizitzeko. Ezagutza hori hobetzeak eta transmititzeak kontzientzia sortzen du, eta baita aurre egin beharreko ingurumen-erronken aurrean erabaki egokienak hartzeko gai izango den gizarte askeago bat ere.

Sortu eta hamabost urtera, lurralde honen zientziaren aldeko konpromisoa indartzeko, ezagutza zabaltzeko, gure lurraldea hobeto kudeatzeko eta batzen jarraitzeko aukera emango diguten istorio onak kontatzen jarraitzeko bildu dira geoparkearen batzorde zientifikoa eta hura babesten duten erakundeak.

Geoparkea aukera paregabea da zientziak, kulturak eta hezkuntzak pertsonen bizitza hobe dezaketela erakusten jarraitzeko.

